




# ADINAGATIKO IRAKASTORDUEN MURRIZKETA



## Metatutako modalitateko adibideak:

1. Bigarren Hezkuntzako langile batek 2030eko abenduaren 31ean erretiratzea erabaki du 64 urte eta 8 hilabeterekin. Eskaera 60 urte bete dituenean (2026ko apirilaren 30ean) egin du ordu murrizketa metatua disfrutatu ahal izateko (apirilaren 30ean). Beraz 4 urte eta 8 hilabete ditu metatzeko. Horren ondorioz, gehienezko metatze aldia gainditu duenez, 18 hilabete pilatuko ditu. Hau da, 63 urte eta 2 hilabeterekin bere irakastorduak utziko ditu (ekainak 30ean), hiru hilabete jakintzaren transmisiorako eta erretiro adina iritsi arte uztailleko izaera izango du.
2. Lehen Hezkuntzako langile batek 2030eko ekainaren 30ean erretiratzea erabaki du 63 urterekin. Eskaera 60 urte bete dituenean egin du ordu murrizketa metatua disfrutatu ahal izateko (ekainaren 30ean). Ondorioz, 12 hilabete metatu ditu. Aurrez, 59 urterekin, 2 orduak metatzea erabaki zuenez, beste 3 hilabete metatu ditu. Horren ondorioz 15 hilabete ditu metatuta, horietatik 3 hilabete jakintzaren transmisiorako izango direnak. Hau da, 61 urte eta 9 hilabetetara (2029ko apirilaren 1ean) bere irakastorduak utzi, hiru hilabete jakintzaren transmisioan eman eta erretiro adina iritsi arte etxean egongo da uztailleko baldintzatan.
3. Lanbide Heziketako langile bat 67 urterekin erretiratu beharra du 2034ean eta eskaria 60 urteak betetzen dituenean egingo du. Beraz, 18 hilabeteko topea izango du metatzeko. 65 urte eta erdirekin bere funtzioak utziko ditu. Ez du Jakintzaren transmisiorik egin beharko eta 65etik aurrera irakastorduen erdiak soilik izango ditu.

Adibideak	Eskaera	Metatuko aldiaren hasiera (transmisioa + etxera)	Erretiroa
1	2026/04/30 (60 urte)	2029/06/30 (63 urte eta 2 hilabete)	2030/12/31 (64 urte eta 8 hilabete)
2	2026/06/30 (59 urte) 2027/06/30 (60 urte)	2029/04/01 (61 urte eta 9 hilabete)	2030/06/30 (63 urte)
3	2027 (60 urte)	2032 (65 urte eta 6 hilabete)	2034 (67 urte)